

noaia

Zumarteko lau ikasle
Andoaingo Piano Jaialdian

Gurasoen artean erdaraz,
gero eta gehiago

2013ko udal aurrekontuen
xehetasunak

Pello Zubiria, Egunkaria auzian atxilotua

**“Euskaraz funtzionatzen zuen
mundu oso baten kontrako eraso izan zen”**

WELLIA

INTZA ILEPAINDEGIA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA
LANTZEN DITUGU

Eguerditan irekia!
Nagusia 8. 943 36 36 41

ASTE SANTURAKO, gure **ESTETIKA ESKAINTZAK** 30€-tan

Gorputz espolazioa eta masajea edo Aurpegiko garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa (jubilatuentzat 22€)

IKASLE EDO 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:

Ingleak + besapeak: 10€ // Bekainak eta bibotea: 7€ // Hanka osoak: 18€ // Hanka erdiak: 10€



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?
DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?
AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

**BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHORZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN**

info@funerariagonzalez.es munalurra 8. Usurbil

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1.20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Albisteak iruditan

Joxe Ramon Zabala, Tipi Tapan saritua

Tipi-Tapa ekimenaren baitan, otsailaren 3an Artzabalen burutu zen zozketak badu irabazlerik. 300 euroko erosketa balea egokitu zaio, irudiko Joxe Ramon Zabalarari. Aipatu diru kopurua Hurbilago elkartekoak diren establezimenduetan xahutu ahal izango du. Gogoan izan, Txapeldun, Artzabal, Bordatxo, Aitzaga eta Txiriboga lotzen dituen pintxo bereziak dastatzeko ibilbide gastronomikoaz gozatu ahal izango dela berriz, datorren astean. IV. Tipi-Tapa martxoaren 3an ospatuko da, goiz eta eguerdi partean. 300 euroko erosketa balearen hurrengo zozketa berriz, apirilaren 7an egingo da.



Martxoaren 3an ospatuko da hurrengo zozketa, Tipi Taparen baitan.

Laburrean

Lilatoiko bazkarian, izen ematea irekita

Lilatoi lasterketa martxoaren 3an izango da Donostian. Proba osterako bazkaria antolatuko dute Artzabal jatetxean. Izena aldeztu aurretik eman behar da, otsailaren 28a baino lehen. Menua 22 euro. Apuntatzerakoan, 7 euro aurreratu behar dira.

Martxoaren 2an, 1979koen kinto bazkaria

Martxoaren 2rako kinto bazkaria antolatuko dute 1979an jaiotako herritarrek. Saizar sagardotegian ospatuko da otordua. Izen emateko zerrenda Txiribogan jarri dute. Apuntatzeko azken eguna, otsailaren 28a izango da.

Ekozinemaldia gaztetxean egingo da aurten

Ostegun honetan, gaueko 22:00etatik aurrera zine-foruma iragarri dute Usurbilgo gaztetxean. Datorren astean, otsailaren 26tik 28ra, Ekozinemaldia egingo da, aurten gaztetxean, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaúa.com /// www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaúa.com.
Diseinu berria: Erroitx S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaúa.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Lurdes
Kamino.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Kemen falta

Eguneroko kirol saioa egin ondoren Antena3aren aurrean jarri nintzen atseden alditxo bat hartzeko asmoz. Debate bat zegoen eta bat batean albistea: Aita Santuak bere kargua uzten zuela. Geroztik ia beste konturik ez da izan.

Benedikto XVIak amore eman du adinaren ahuldadeak eraginda. Bere lana ondo betetzeko indarrak gabe sentitzen da eta uko egiten dio karguari. Jaungoikoaren aurrean ondo aztertu ondoren hartu duela erabakia esan du. Karguari otsailaren 28an egingo dio uko, 20:00etan eta klausurako mojatxo batzuen monasteriora erretiratuko da bere azken egunak bakean igarotzera.

Berria aukeratzeko Konklabea dituko dute eta bertan ez du parterik hartuko adituek diotenez. Pazko inguruan jakingo dugu Aita Santu berriaren izena.

Guztiz txalotzen dut hartu duen erabakia: ausarta eta zentzuduna. Ez da izan nire debozioko santua, baina, miresten dut eman duen pauso historikoa. Gogoan al duzue Joan Pau-

lo IIaren azken hilabeteetako kalbariora eta heriotza telebistatua? Lotsagarria eta penagarria izan zen ikuskizun hura, lerdea zeriola mundu osoraren aurrean.

Jainkoaren nahia omen zen noski azken unera arte eraman zezan aitasantutzaren zama, Jesus ere ez omen zen jaitsi gurutzetik. Horrela, ko adierazpen inozoak entzun ginen.

Kargua uztearen arrazoiak bi eraketa izan dira: alde batetik adinak eragindako nekea, ahuldadea, ezina, kemen falta. Eta bestetik, atzo bertan aditzera eman zuenez Vatikanon barruan sumatu dituen botere gosegarriak eragindako borrokak eta bertako ustelkeria eta maltzurkeria. Putrez eta otsoz inguratuta egon da nonbait eta bakardade handian.

Argi uneak: lehenbizi, hartu duen erabakia, izan ere, ia 700 bat urte badira horrelakorik ez dela gertatu kristau elkarteetan. San Zelestino V.ak hartu zuen erabaki bera erdi aroan; hiru hilabete bakarrik iraun zuen karguan eta Vatikanoko kuxidada iku-

sirik monasterio batera erretiratu zen. Tabu bat apurtu du eta bide berri bat ireki; aitasantutzaren mitoa desegin du. Bigarren, kapitalismo basatiaren aurka gogor borrokatu du. Hirugarren, Elizaren erruak (pederastia kasuak, ustelkeria...) salatatu ditu, nahiz eta epel samarra izan salakuntza hori. Eta azkenik, intelektual maila handia erakutsi du bere idazkietan, nahiz homilietan. "Deus caritas est" (Jainkoa maitasuna da) karta entziklika aparta da.

Ilun uneak: Eliza katolikoaren dotrina atzerakoiari eutsi dio amaiera arte. Horren ondorioak: Vatikanoko II. Kontzilioan proposatutako bide berritzailetan sakondu ordez, inboluziora jo du; sexu berekoen arteko ezkontzak gaitzetsi ditu, esanez, Jainkoaren nahia- ren kontrako jokabidea dela eta. Noiz agertu ote dio Jainkoak bere borondate hori? Homofobia bultzatu besterik ez du egin adierazpen horiek. Iazko apirillean errieta eman zien Elizaren barruan emakumeak meza emateko eta apaizak ezkontzeko

eskubidea aldarrikatu zutenei. Eta azkenik, dozenaka teologo disidente edo progresista zigortu ditu bide berriak urratzen saiatu zirelako; bere ustez, betiko dotrinari eutsi behar zaio, mundua aldatu ez balitz bezala.

Eta orain zer? Jendeak ez dauka itxaropen handirik etorkizunari begira, arrazoi xume batengatik: aukeratu duten Aita Santu berria aurreko bien antzekoa izango delako.

Izan ere, egungo kardinalak, ia denak, Joan Paulo II.ak eta Benedikto XVI.ak izendatuak izan direlako, ideologia berbera dutelako. "Kristau soilok izan beharko dugu Eliza aldatuko dugunak, hierarkiaren aldetik ez baitago horretarako ahaleginik", dio Borja Agirre frantziskotarrak.

Aita Santu berriak erronka latzak dauzka aurrerantzean: emakumearen egitekoa. Elizan, homosexuali emandako tratua, askapen adierazpena, pedofiaren tragedia, eta hitz batez, ea pertsona bakoitzaren zorian-tasunaren zerbitzuan jartzen den eta ez dogmaren murrizketapean.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Errauskailurik ez: ez Zubietan, ez beste inon

Duela sei urte, 2007an, Gipuzkoako errauskailua gure herrian, Zubietan, egitea onartu zuten herrialdeko erakundeek. Ez ziguten ezer galdetu, ez zuten inongo erreferendumik egin herrian: geure etxe ondoan errauskailua jartzea erabaki zuten, prentsa bidez izan genuen erabaki haren berri, eta errauste planta eraikitzeko prozesu luzearen lehen urratsak ematen hasi ziren.

Zubietarrok egitasmo honen kontra agertu gara hasiera-hasieratik: hamaika alditan esan dugu, aukera izan dugun guztietan, eta entzun nahi izan duenak entzun du gure ahotsa. Ez dugu halakorik nahi; izan ere, azpiegitura hauek arriskutsuak dira pertsonen osasunerako, ikerketa askok eta askok

agerian utzi dutenez. Horregatik, sei urteotan, behin eta berrero, ezetz esan diogu Zubietan errauste plana egiteko proiektuari: geure osasunarekin eta geure seme-alabarekin jolasean ibili nahi ez dugulako, eta herri garbi eta bizia eraiki nahi dugulako.

Sei urteotan, argi izan dugu, era berean, ikuspegi solidario eta koherente batez, ez genuela errauskailua beste inon jartzea nahi, ez baikenuen geuk ere etxe ondoan izan nahi, eta mezu hori ere ozen zabaldu dugu milaka eta milaka gipuzkoarren laguntzaz.

Azken hilabeteotan errauskailua egiteko lanak geldirik egon dira. Baina zubietarrentzako mehatxua hor dago oraindik ere: ez dugu mamua uxatzea lortu, bertatik bertara dugu, etxe

alboan. Horregatik, proiektu hau behin betiko amaitzeko garaia dela uste dugu. Are gehiago, errauskailuen eraginaz egindako azken ikerketaren ondorioei erreparatzen badiegu: Madrilgo Carlos III Institutuko ikerlariak berriki adierazi dutenez, errausketak nabarmen handitzen du minbizia izateko aukera inguruko herritarren artean. Ez da guk esana, ikerlariak esana baizik. Zubietarrok ez dugu halakorik merezi. Inork ez du halakorik merezi. Gure mezua garbia da: errauskailurik ez. Ez Zubietan, ez Zarautzen, ez Tolosan, ez Azpeitian, ez Legazpin, ez Bergaran, ez Beasainen, ez Donostian. Ez dugu errauskailurik nahi; inon ez. Errauskailua ez da inola ere hondakinen arazoaren konponbidea.

Are okerrago: ezer ere ez konpontzeaz gain, mehatxua da pertsonen osasunerako eta ingurumenerako. Gipuzkoako jendarte osoari dei zuzena egin nahi diogu: arduraz joka dezagun denok, kontuan har dezagun ikerlariaren iritzia eta utz dezagun alde batera, behingoz eta behin betiko, errausketaren aukera. Dei hori, bereziki, gipuzkoarren ordezkari politikoei eta herrialdeko erakundeek egin nahi diegu: berma ezazue herritarron osasunerako eskubidea eta bukatutzat eman ezazue, lehenbailehen, errauste planta egiteko proiektua, inork ez duela ko etxe ondoan halakorik izan nahi eta alternatibak egon badaudelako. Errauskailurik ez: ez Zubietan, ez beste inon.

Gipuzkoa Zero Zabor

“90 milioiren interesak ordaintzen ari gatzaizkie herritarrok bankuei”

Gipuzkoako hondakinen kudeaketa eredia aztertuko dute Europako Parlamentuan

Eguzki, Ekologistak Martxan, Gipuzkoako errausketaren aurkako plataformen koordinadora, Gipuzkoa Zero Zabor eta Greenpeace eragileek hondakinen kudeaketaren gaiari lotuta azken asteotan zenbait hedabideek kaleratu dituzten albisteen aurreko hausnarketa plazaratu zuten. Prentsaurreko bidez eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako egoitza atarian, barruan, Ingurumen Batzordean hondakinen kudeaketari lotutako gaiak tratatzen ari zirenean.

Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko ordezkariak gogorazi zutenez, erraustegiak “ez dio Gipuzkoako gizartearen beharrei erantzuten, herritarren diruaren kontura aberasten segi nahi duen lobby ekonomiko baten diru goseari” baizik.

KONTRATUA SINATU

Batetik, “swap” izeneko finantza produktuaren inguruko argibideak eman zituzten: “Bakarrik 9 milioi erabili eta 90 milioiren interesak ordaintzen ari gatzaizkie herritarrok bankuei swap hori sinatu zutenen erruz”. Finantza produktu “espekulatibo” horrek errauste planta egitasmoaren atzean dagoen enpresa taldeari soilik egiten diola mesede eta bere helburu nagusieta-



Hainbat taldek prentsaurrekoa eskaini zuten Gipuzkoako Batzar Nagusien atarian.

FINANTZA KONTUAK

“9 milioi erabili eta 90 milioiren interesak ordaintzen ari gatzaizkie herritarrok bankuei swap hori sinatu zutenetik”

koa, “eraikitze lanak aurre finkatutako egutegi baten arabera eraikitzea behartzea” dela gaineratu zuten. Laburbilduz, errauste planta bera “blindatzea” duela helburu.

ANGULA JANAZ

Finantziazio kontratua sinatu ostean, aurreko legegintzaldiko GHK-ko arduradun Markel Olano eta Carlos Ormazabalak hedabide batzuk kaleratu dutenaren arabera eginikoa ere baloratu zuten prentsaurreko berean, “diru publikoz

ordainduta” bankuetako ordezkariekin angulak jatera joan izana alegia. “Anekdotak penagarri bat baino askoz gehiago da. Errausketaren aferraren atzean zer dagoen isaltzen du garbiki. Baldintzak nork jartzen dituen eta nork obeditzen duen erakusten du gertaera horrek. Baldintzak enpresa handiek eta bankuek jartzen dituzte. Obeditu eta gonbidatu orduko agintariak. Ordaindu herritarrek. Bai angulekin, bai errauste plantarekin. Eskema berbera da”, adierazi zuten.

Errauste planta proiektuaren atzean dagoen enpresa taldearen jarrera ere ahotan hartu zuten. “Herritarren diruaren kontura negozio seguru egiteko ametsa arriskuan ikusteak aztoratu ditu”.

Hondakinen kudeaketa aztergai European

Martxoaren 7an, hondakinen kudeaketa alorrari loturiko jokatibide onak aztertzeko mintegia burutuko dute Europako Parlamentuan, eta Gipuzkoako Foru Aldundia gonbidatu dute.

Ingurumen diputatu Iñaki Errazkinen esanetan, “argi dago hondakinak kudeatzeko Gipuzkoako esperientzia eredu garri ikusten dutela European. Gipuzkoako Foru Aldundia eta gure herrialdeko gero eta sektore zabalago bat egiten ari garen apustua zuzena da, arduratsua, eta bat egiten du erabat Europak ezarritako helburuekin, irizpideekin eta lehentasunekin”.

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-ixiki 13, 3.esk USURBIL

OKindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Mertxe Aizpurua: “Erronka nagusia, zerbitzuak mantentzea izango da”

Murrizketak izan dira departamendu guztietan, Ongizateko dirulaguntzetan ordea ez

Behin betiko onartu berri dira 2013rako udal aurrekontuak, azken hamarkadako baxuenak. Ongizatean izan ezik, murrizketak aplikatu ditu Udalak departamendu guztietan. Krisi egoeraren testuinguruan kokaturiko diru kontuez ari baikara. “Zorroztasuna eta gastuari eustea” dira Bilduren erronketako batzuk, aurtengoari begira. Baina baita, ahal dela, udal zerbitzuak bere horretan mantentzea, Mertxe Aizpurua alkateak NOAUA!ri adierazi dionez.

Azken hamarkadako udal aurrekontu baxuenak onartu dira. Zer eraginda?

Mertxe Aizpurua: Alde bate-tik krisi ekonomikoaren eragina dago. Hor bi faktore dira batez ere eragin dutenak; Foru Aldunditik jasotzen dugun dirua murrizten ari da, eta bestetik, hirigintzako etxebizitzak egitetik Udalak dirutan jasotzen duen aprobetxamenduaren beherakada izan da, eraikuntza erabat gelditua dago eta.

Behar beharrezko inbertsioak bultzatzeko eta gastuei aurre egiteko aurrekontuak izango direla adierazi duzue?

Murrizketak izan dira departamendu guztietan, ongizateko diru-laguntzetan izan ezik, mantendu baitira. Gastuak bai, askoz gehiago kontrolatu eta ordenatu ditugu. Egin den lanketa horren ondorioz, pixka bat murriztea lortu da.

Krisi egoera zail batean kokatzen dituzue aurrekontuok. Zer aurreikuspen ditu-



Egoera ekonomikoa ez da erraza eta horrek ere eragin du 2013ko udal aurrekontuak osatzerako orduan.

MERTXE AIZPURUA

“Garai bateko egitasmo ikusgarriak egitea ez zaigu tokatzen. Arduragabekeriaz jokatzeta litzateke”

zue aurtengorako?

Ikusteke dago. Adituek diotenez, krisi honek ez du erabat hondoa jo oraindik. Egoera hobera ez doa. Abiapuntu horretatik hartu ditugu jada 2013ko aurrekontuak, baina baita 2014 eta 2015ekoak ere.

Horrelako egoera batean murgilduta egongo gara, hobera ez du egingo eta horretara egokitu beharko dugu. Gure erronka nagusia, Udalak ematen dituen zerbitzuak ahal bada behintzat, bere horretan mantentzea da.

Garai bateko egitasmo ikusgarriak egitea ez zaigu tokatzen. Arduragabekeriaz jokatzeta litzateke halako saltsetan sartuko bagina. Hori da erronka nagusia, zerbitzuak eta batez ere ongizateari lotutako zerbitzu guztiak mantentzea.

Beharra izango da eta?

Ziur aski egoera okertzen doan arabera, eskaera gehiago eta behar gehiago sortuko dira. Orduan behar horiei ziur aski ehuneko ehunean ez dugu erantzuterik izango, baina bai ikuspegia norabide horretan, edo egoera horretara jarri behar dugula. Eta beste aldetik ere, justizia sozialaren irizpidea izan behar du nahi eta nahiez. Testuinguruak markatzen gaitu eta egia da, garai zailak dira eta horiei egin behar zaie aurre, ahal den neurrian.

“Udal baliabideak erabiltzeko daude”

Herritarren partetik iristen ari zaizkizue beharrea dau-denen eskaerak?

Mertxe Aizpurua. Oraingoz Usurbilen ez da gehiegi nabaritu, baina joera bat ikusten ari da, eta egia da, lan eske eta horrela etortzen dela jendea ere. Egoera zaila da. Estatu espainia-

reko toki batzuetan bizi duten egoera, hemen badirudi atzerago datorrela, hemendik aurrera pairatzen hasiko garela egoera hori. Gaur goizeko datuak dira, 600 enpresa inguru itxi direla urtarrilean.

Laguntza behar dutenentzat...

Gizarte Zerbitzuak hor daude, eta gida bat prestatzen ari gara, bai kanpotik datozenei Udalak zer zerbitzu ematen dituen erakusteko eta baita ere herritarrei. Herritar asko eta asko baitira ezagutzen ez dutenak. Udal zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko daude.

Beharrezkoak diren inbertsioak, eta laguntzetan murrizketarik ez

Arloz arlo, aurten egingo diren inbertsio nagusiak azaldu dizkigu alkateak

Jarraian datozenak dira, departamendu bakoitze-ko beste zenbait zehaztasunekin batera, gobernu taldeak arlo bakoitzera bideratu asmo dituen diru partida nagusiak, aurreikusten diren zenbait egitasmo, eta hauen inguruan, alkateak eginitako zenbait balorazio.

HIRIGINTZA

-Mikel Laboa plazako hirugarren faseko lanak. Lanoi "bukaera eman behar zaie, diru laguntza bati lotuta egiten ari gara eta".

-Txokoaldeko plazaren konponketa: "Penagarri zegoen, irisgarritasuna ez zen bermatzen".

-Lan txikiagoak: "Bizkarreko zoladuran itogin handiak daude etxe azpian. Hor Udalak badu zati bat konpontzeko". Bi urteetan konpontzeko asmoa dute.

-Hirigintza Plan Orokorra garatzen hasteko partida: "Garantzitsua da, herriaren etorkizuna marrazten duen erabakia da. Hiru bat urteko lanketa



Mikel Laboa plazako lanak amaituko dira aurten.

suposatuko du. Herritarrekin partekatu nahi dugu".

ZERBITZUAK

-Aurrekontuaren %20a suposatzen dute.

-Gastu murrizketa kaleko argiterian: "Agian herritarrek konturatuko ziren, toki batzuetan farola batzuk itzali egin dira, kontsumoa gutxitzeko".

-Sortzez besteko ezarpenarako hondakinen tratamendurako lanketa.

(-Azken euriteek hondatutako beste bi bide konpontzeko laguntzak eskatu ditu Udalak).

INGURUMENA

-Eraginkortasun energetikorako hobekuntzak prestatzeko edo aztertzeko partida.

-Auzo konpostatze gunetarako partida.

-Bide gorri sarearen garapena erdigunean.

HEZKUNTZA

-Udarregi Ikastolako patioko obrak irisgarritasuna bermatzeko eta Agerialdeko eraikina behar dituen egokitzapenak. "Behar beharrezkoa da, hezkuntza behar bat da herri honetan eta ikastolak behar

hori du. Ikastolak erantzuten dio gaur egun herritarrek dituzten hezkuntza beharrei".

GIZARTEKINTZA

-Murrizketarik ez diru-laguntzetan.

-Garapen bidean dauden herrialdeentzat %0,8ko diru-laguntzak. "Euskal Herri osoan, laugarren herria gara ehunekoan diru gehien bideratzen duena egitasmo honetara", adierazi digu alkateak.

-Bi etxeren eresketa Santuenean, alokairu sozialera bideratzeko.

KULTURA

-Murrizketa Santixabeletako partidan. Auzoetako jaietan ez.

-Gazteriak pairatzen dituen indarkerien aurkako heziketarako partida.

KIROLAK

-Kiroldegiko ordutegia murriztu da, defizita jaiste aldera.

UDAL LANGILEGOA

-Soldata goerarik gabe.

Parte hartze prozesuarekin, "gustura geratu gara"

Auzoz auzoko bilera erronda batekin, herritarrekin batera osatu nahi izan dituzue aurrekontuok. Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Mertxe Aizpurua. Bidea hori da. Horrela egin behar dira aurrekontuak eta hor nabaritzen da auzo bakoitzaren berezitasunak edo eskaerak nondik nora doazen. Irregularra izan da bileretako parte hartzea, hainbat lekutan oso ondo joan da jende gehiagorekin, eta beste batzuetan jende gutxiago izan da.

Baina denetan gustura geratu gara. Bilera horien ondorioz, zeuden hainbat behar kalibratu ditugu eta horietako batzuk aurrekontuetan isla izan dute, Txokoaldeko plazako eraberritzea adibidez. Beharrezko eskaerak zein diren neurtu eta ikusteko balio izan digu.

Kirol Patronatuaren desegiteak udal aurrekontuetan eragin du?

Lehen bi aurrekontu egiten ziren, bat Udalarena, eta beste bat Patronatuarena. Orain dena batean dago.

Lanpostuen zerrendan ere aldatuta dago. Patronatuko langileak ere udal egitura barruan sartu dira. Gainerakoan, aldaketa handirik ez. Hartu dugun erabakia funtzionamendurako ona izango dela pentsatzen dugu. Azken finean, pertsonal eta baliabide gutxi zuen Patronatuak. Ezinezkoa egiten zuten prozedurazko gauzak eta tramiteak eta administrazio lanak ongi betetzea. Udaletxearen baliabideak gehiago direnez, dena hobeto joango dela pentsatzen dugu.

laz baino adostasun maila handiagoarekin onartu dira aurrekontuok?

Bai noski. Aralarrekin hainbat bilera egin ditugu, elkarlan bat egin dugu. Egia da beraiekeren proposatutako ideien bitartez, aldatu eta onartu direla aurrekontuetan. Ontzat hartu ditugu euren iritzia eta proposamenak, eta elkarlan on bat eraman dugu aurrera. Aralar eta Bilduren artean proposatutako aurrekontuak dira. Poztekoa da.



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Eskola Txikia

Aginagan dagoen eskola txikiaren inguruan idatzi nahi dut, argazkian azaltzen diren (bi falta dira) eta beraiei zaindu eta heziketa lanean ari diren irakasleak aipatuz. "Altxor berezia" daukagula us-te dut, nahiz askotan ez baloratu. Lehen ere gure seme-alabak bosgarren mailan Udarregi Ikastolara joaten zirenean, oso maila ona zeukatela jakinarazten ziguten irakasleek eta hori pozgarria dela esango nuke. Horregatik, Eskola Txikia mantendu beharra daukagu denon artean. Saiatuko gara.



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Kiroldegia

Herrian eta gertu daukagu Kiroldegia. Duela urte bat edo amaitu ziren handitzeko lanak. Gimnasioa tokiz aldatu zuten, beste tarte bat emanez. Bertara joaten gara adin guztietako herritarrak, haurrak eta gaztetxoak. Bertan murgildu dira inauterietako entseguetan, dantzak, konpartsak. Hainbat pauso moldatu dituzte umore onean. Kiroldegian aukeran ditugu igerilekua, judo, pilates, hip hop, gimnasia erritmikoa, aerobik... Argazki honetan azaltzen dira mantenimenduko gimnasiara joaten garen taldea. Iazko argazkia da. Urte asko daramatzate bertan agertzen diren batzuk. Giro polita izaten dugu, Leire monitorearen eskutik. Osasungarria izan liteke joanez gero, beraz animatu. Bukatzeko agur bat luzatu nahi diet herritar izanik kanpoan bizi eta irakurle direnei. Eta biziki osaba Joan Mari Argilangoari, muxu bat eta ikusi arte!



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Irribarrea neguari

Euria, haizea, txingorra, berriz ere euria...Neguan gaude eta normaltasunez hartu beharko genuke, urteko hilabete hauetan hau dena zerutik gure buru gainera erortzen ikustea, baina aurten egia esan, neurritz kanpo bustitzen ari gara. Horrek gure inguruan kalteak sortu ditu. Lurjausiak, ibaiko uren igoera eta irteera, eta nola ez, gure buruan ere eragina izaten du horrelako eguraldiak. Ez da erraza zerua ilun dagoen bitartean, burua argi izatea. Zenbat arratsalde etxean sartuta eguraldi txarrak behartuta. Zenbat gripe ezta eta muki, eguraldi txarrak sortuta. Zenbat beldur ibaiari begira berriro gainezka egin ez dezan! Horrela ikusita badi-rudi auzoan bizi-tortura bat dela. Gure auzoan ordea orain badauzkagu zenbait lokal eta tope gune, zahar, gazte nahiz umeak aterpean elkartzeko. Frontoia ere hor daukagu. Hainbeste urte eskatzen, aprobetxatu beharko dugu ba! Ibaiak ere aurten bakarrik beldurtu egin gaitu eta lurjausiak urrutitik ikusi ditugu aurten. Nik uste neguari irribarre bat ateratzeko aukeran gaudela oraindik, beraz ez utzi zeruaren iluntasuna zure barrura sartzen eta sagardotegi garaiaz adibidez, gozatu!



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Andatza proiektua

Zubietara bizitzera etorri, Andatza aldera begiratu eta neure buruari esan nion: "hara, parean ez zait ba Gipuzkoako mendirik politena tokatu". Orduetik, dena den, hartu diet xarma puntua Zubietako gainei eta Andatzari berari: harizti umilak, ezkutuko erreka eta ondo-lekuak, mendiko bizikletarako bidezidor es-tuak, pinu-orbelaren moketak, itsasertzerako begirako talaiak...

Azkenaldian aldaketak sumatu ditut Andatza: batetik, pinuz hustutako eta bertako arrazako zaldi eta behiekin betetako belardiak atondu dituzte eta, bestetik, urte bukaeran hondeamakina eta kamioiekin kristoren txikizioa abiatu zuten Andatza gaineko izeiak ebaki eta garraiatzeko. Lastima... eta aukera!

Bai, aukera. Mendian aldaketak egiten hasita, aukera Andatza erakargarriago egiteko, inguruko bizilagunentzako atseginoago, bisitari-entzako gustagarriago... Aukera paisajistikoa aldetik postaletarako txokoak atontzeko, aukera euskal arrazentzako habitata sortzeko, aukera jarduera ekonomiko iraunkorak sustatzeko, aukera turismo aktiborako gune bihurtzeko; oinezkoentzako, zaldi raidetarako eta mendiko bizikletarako ibilbideak seinalatzeko eta publizitatuz... Aukera ederra daukagu Andatzarekin proiektu orokor eder bat pentsatzeko. Zubietan eta Usurbilen baditugu euskal arrazen aditu eta sustatzaileak, badugu izen handiko paisajista, baditugu Andatza maite duten mendizale, korrikalari, bizikletazale eta zaldizaleak, eta baditugu parte-hartze egitasmo baten ideia mordo emango luketen herritarrak.

OSASUN GIDA 2013



USURBIL
OPTIKA

Erizumeneko aparatuak • Igeniekuko tapoiak neurria eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

50€-ko
BALEA

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

Öinutsik

podologia zentroa

Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatikokoak

Maisu formulak

Bordo berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 publizitatea@noaua.com

“Martxelo Otamendik zioen moduan, tortura oso merke ateratzen da”

Duela hamar urte bezain latzak dira Pello Zubiriak gogora ekarri dizkigun gertaerak

Konturatzeko hamarkada bat pasada, Euskaldunon Egunkaria bidegabe ki itxi eta hainbat lagun atxilotu zituztenetik. 2003ko otsailaren 20a zen. Itxieraren ostean, atxilotuek salatutako tratu txarrak, kaleetako elkartasun uholdea, edota Berria proiektua etorri ziren gerora. Aurreago, zazpi urte itxaron izan behar bazuten ere, Egunkari kasuaren zati baten absolutzioa. Auzi ekonomikoa oraindik zintzilik baitago. Bete berri den hamarkada honetaz solasean aritu da NOAUA! Pello Zubiria aginagarrarekin.

10 urte bete berri dira Egunkaria itxiarazi zutenetik. Urteurrenak eragiten dizu?

Pello Zubiria. Orain ez gehiegi. Ekitaldiak eta badira. Torturaren aurkako egunaren inguruan izaten da. Otsaila gainera oso hilabete iluna izan da beti Euskal Herrian. Egun hauetan Joxe Arregirenaz gain, otsailan gauza asko gertatu dira. Kartzelatik atera berritan izan nuen beheraldi, estuasun gehiago. Baina hori nahikoa gainditua dudalakoan nago.

Memoria ez dugula galdu behar esaten da. Nola gogoratu beharko genuke Egunkariaren itxiera?

Euskaraz funtzionatzen zuen mundu oso baten kontrako eraso bat zen. Asko gogoratzen gara Eginen itxierarekin, Joxemi Zumalabe fundazioarekin, 18/98. AEKren kontrako eraso ere izugarria izan zen eta hori ere gertutik bizitzea tokatu zitzaigun. Bestalde, ETA edo ezker abertzalearen inguruaren ideia horrek kalte handia egin du, baina ez da duela hamar urteko kontua. Egunkaria sortu



Zazpi urteren ondoren absolutzioaren berri jaso zuten. Auzi ekonomikoaren afera, ordea, zabalik dago oraindik.

PELLO ZUBIRIA

“Esaten dutenez, neure burua urkatzen saiatu nintzen toalla batekin”

zenetik eta aurretik ere teoria hark funtzionatzen zion estatuari eta hemengo jende bati baita. Hori oso kaltegarria izan da. Eta torturarena, frustrazio handi bat. Seme-alabak edo ilobak egoera berean ikusi ditugu, zerbait oso gaizki egin dugu gure belaunaldian. Amestu dugu soberania edo independentziarekin, baina gaitasunik ez dugu izan Europan normala den zerbait lortzeko; poliziak jendea normal tratatzea. Alde horretatik niretzat frustrazio handia izan da hori. Eta gero inpotentzia hori, torturak salatu edo ez, ez dela ezer gertatzen. Martxelok zioen moduan, oso merke ateratzen da.

Nola oroitzen duzu 2003ko otsailaren 20 hura?

Oroitzapen asko ez ditut eta gainera oso nahastuak. Etxean sartu ziren. Hortik hasten den gutzia gero; atxilotzea, inkomunikazioa, Argiatik ere pasa-

ztea. Pentsatzen duzu Argia ere itxiko dutela, ez baitakizu nondik doan kontua. Orduan bajaran nengoen artritis gogor batekin, eta bospasei orduko bidaia Madrilera makurtuta. Hori da hasiera. Hori kontatzen diozu Europako jendeari eta hori haientzat tortura da. Madrilera iristen zara, benda bat jartzen dizute begietan. Hor oroitzapen nahasiak ditut. Edukitzen naute egun eta erdiz Guardia Zibilaren eskuetan. Besteak baino denbora gutxiago izan ninduten. Egun eta erdi horretan eta gero zer gertatu den inork ez du esplikatzen eta inork ez du galdetu. Jende gutxi daki, familiak uste zuela Gregorio Marañon ospitalean nengoela. Gerora jakin du sendiak, egun eta erdian hirutan atera nindutela handik.

Ospitale horretako guardian zegoen medikuak egindako gauzak. Argi utzi zuen, oso estresatua eta antsietate krisiarekin nengoela. Epaileari esan zion ez nengoela interrogatua izateko baldintzetan, baina erabakia epaileak hartu behar duela. Bigarren aldiz bidaltzen nautenean, ni ez naiz gogoratzen sartu eta atera nola egiten nauten, medikuak

esaten die, “eramaten duzue baina zuen ardurapean”. Hirugarren aldia jada ez du onartzen. Pentsa mediku hark zer ikusi zuen ez onartzeko ospitaleatik ateratzea. Bestalde, espetxean egonda estu eta larri, adineko pertsona bat entzun nuen arnas-estuka. Gero jakin nuen, Luis Goia zela. Bihotzekoak jota hil zen. Entzun nuen Inma Gomila tanpax bat eskatzen. Obarioetako minbi-ziarekin hil zen. Entzuten dudan hirugarren pertsona Iñaki Uribe izan zen. Isolatua nengoen, oihu asko entzuten nituen. Baina ez dakizu beldurtzeko grabazio bat ote den, egia den. Baina gero entzuten duzu norbait daramala. Ospitalean azaltzen naiz, epaileak bisitatzen nau, baina esaten dit ez didala deklarazioa hartuko. Nik deklaratu nahi dudala esaten diot, ez dudala guardia zibiletara bueltatu nahi. Berak ezetz. Nik oraindik ez nekien beste inor zegoenik atxilotua, zer gertatzen ari zen. Guardia zibiletara bueltatuko nautela esaten didatenean, hor zerbait gertatzen da eta ni ez naiz oso ondo gogoratzen. Esaten dutenez, neure burua urkatzen saiatu nintzen toalla batekin.

“Inkomunikatuta geundenean, konboi bat Arantzazu okupatzera zetorren”

Kezkaturik jarraitzen du, Espainian protokolo berberak mantentzen direlako

Egun haietan gertatzen ari zenaz ere ez zen informazio argirik?

Pello Zubiria. Emazteari ni ospitalean nengoela esan ziotenean, bera lasaitu zen. Artritis krisi larri batekin nengoen, bastoi batekin eta okeroker eginda. Gero beren sustoa izan zen, denak deklaratzera pasa eta ni falta nintzenean. Ez zieten esaten ezta non nengoen ere. Emazteak komentatzen du, parlamentari askoren bidez, Marañoeko arduradun batekin egotea lortu zutela. Bizirik nengoen edo ez jakitea lortu zuten, hilda nengoela uste baitzuten. Gregorio Marañoek aparteko zonalde bat du, iristeko zaila. Han ez da inor sartzen, baimen berezi batekin ez bada. Gure sendiek eta galdetzen zutenean inork ez zekien ezer nitaz. Deklaratu nuen. Ez nintzen gogoratzen zer deklaratu nuen, baina lasaitu nintzen ikustean zer deklaratu nuen; hainbeste lan egin genuela, eta ez genuela halako ordainik merezi. Handik atera eta gero galdetzen nuen ia zer gertatu den. Operazio hori zer izan zen ez dute azaldu. Hor bada detaile bat, nonbait publikatu den arren, haria segi ez zaiona. Gu inkomunikatuta geundenean, geroztik jakin dugu, guardia zibil konboi bat Arantzazu okupatzera zeto-rra.

Espetxetik ateratzean, itxieraren atzean zerbait handia zegoela zenioen.

Bai. Egunkarian denbora labur egon nintzen zuzendari. Ni auzitik kanpo geratzen naiz preskribituta dagoelako. Poliziak jakin behar zuen hori. Orduan ni zertarako behar



Pelloc eta sendiak eskerrak helarazi nahi dizkiete laguntza eskaini zuten guztiei.

“Frantziskotarrek egiten dituzte gestio batzuk Vaticanora. Konboi hori gelditzen da Aranda de Dueron eta buelta ematen du”, aitortu digu Pello Zubiriak

naute? Arantzazuko kontuarekin aluzinatu nuen. Guardia Zibilen konboi bat zihoala autopistatik Arantzazu okupatzera. Frantziskotarrak parlamentarien bidez jakiten dute. Egiten dituzte gestio batzuk Vaticanora. Konboi hori gelditzen da Aranda De Dueron eta buelta ematen du. Hori argitaratuta dago. Operazioak bigarren zatiarekin jarraitu zuen irailean, auzi ekonomikoarekin, baina tartean Udalbiltza ere pikutara joan zen. Zergatik? Horiek oraindik, idatzi gabe dauden istorioak dira.

Epaiketari aurre egin beharra gero. Aipatzekoa herri akusazioen jarrera edota zazpi urte itxaron beharra absolutioa heldu arte?

Garbi dago espainiarrak erabiltzen ari direla, estatuak be-

re disidentziaren aurka egiten duen mendekuan.

Martin Ugalde eta emaztearekin egoteko aukera izan genuen, kartzelatik irten ostean. Ugalderen emazteak esaten zigun familia zaintzeko eta mendeku giroa etxean sartzan ez uzteko. Mendeku giroa etxean sartzan bazen, galduak geundela. Emazteak ere esan zuen hedabideren batean, ez zuela utziko epaile batek familia izorratzen. Mendekua arrisku txarra da. Baina mendekuak ez du irtenbiderik, ezin duzu helbururik lortu. Baina Espainiako agintariei bai balio diela biktimen artean mendekua sustatzeko.

AUZI EKONOMIKOA, ORAINDIK ZINTZILIK Auzi ekonomikoa itxi gabe dago. Zertan da?

Prozesu judizial honetan, odoltsuena, auzi ekonomikoan langileak auziperatuta ikustea da. Oraindik zintzilik dago auzi ekonomikoa. Ni ez nago atal horretan. Hamar urtez auziperatua egotea oso denbora luzea da. Haien ondoan egon besterik ezin da egin. Lehenengo sumario handia desmuntatzen denean absolutio batekin, auzi ekonomikoa pasatzen da Gipuzkoara. Gai ekonomiko bezala itxita egon behar zuena, nonbait ez da itxi eta hor betikotan sartzan gara, epailea eta fiskala hierarkikoki noren azpian dauden. Pentsatzen dut hor eongo dela katramilatua. Bestela horrek ez du ez buru, ez hanka.

Epaiketa etortzen bada, gero ikusten denean ez dagoela ezer, auziperatuei ez zaie inor ezer esatera etorriko eta hori penagarria da.

“Gaizki tratatzea sistematikoa da”

Bidegabea izan zen itxiera, zuek jasandako tratua... Zertan gelditu dira salaketak?

Pello Zubiria. Martxelo Otamendik gutxienez lortu du Europaraino eramanean eta irabaztea. Lan hori egiteko kostea ere zure gain hartu behar duzu. Ez gaituzte ezta lekukoak galdekatu. Nola ez zaion neurria jartzen, eta ez zaion konponbidea jartzen beti berdin jarraitzen dugu. Zuk ez duzu bermerik, atxilotuta normal tratatuko zaituztela eta hori ez da normala. Alde batetik propioari dira segitzen horrekin, interesatzen baitzaie jendea odol txartzea. Ez zaie interesatzen konponbidea.

Oinarri sendorik bada, Egunkariarena bezalako injustiziak berriz ez errepikatuko?

Giroa aldatu da, baina aldatu da bereziki ETak erabaki estrategiko bat hartu duelako eta Ezker Abertzaleak hartu duela erabaki bat. Baina Espainian gauza batzuk garbitzen ez badira, “egia, justizia, eta erreparazioa” dioten horretan, eta erreparazioan alaketak sartzan ez badira, protokolo berdinarekin jarraitzen badugu... Munduan ez da normala egunkari bat itxi eta jende bat atxilotzea oinarri gabe. Bidegabekeria hori Espainian bada posible, eta hala da, Auzitegi Nazionalean ez dut ikusi ezer aldatu denik.

(...) Espainiako poliziak ez duela bere protokoloa aldatu, horrek eragiten dit frustrazio gehien. Hori sinesgaitza da. Normala ez dena da poliziak protokolo bat izatea eta beti berdina euskal herritarrentzat. Gaizki tratatzea sistematikoa da.

“Ezin zaie euskaraz hitz egitea exijitu, lagundu egin behar diegu”

Gurasoen arteko harreman hizkuntza euskalduntzeko saiakeran dabil ikastola

Soziolinguistika Klusterrreko euskararen erabilera neurketaren inguruko azken azterketak argi zioen. Gurasoek seme-alabekin euskaraz mintzatzeko joera duten arren, seme-alabarik ez dagoen uneetan gurasoak elkarren artean erdaraz komunikatzeko ohitura handiagoa dute. Errealitate honen isla da ikastola ataria. Eta egoera honen aurrean kezkatuta, Udarregi Ikastola gurasoen arteko harreman hizkuntza euskalduntzeko saiakeretan dabil, Ibon Azkonobieta ikastolako hizkuntz normalkuntzarako arduradunak NOAUA!ri berri eman dionez.

Nondik dator zuen kezka?

Ibon Azkonobieta. Badira urte batzuk sumatzen dugula ikastolan, seme-alaben bila doazenean gaztelerarako joera geroz eta handiagoa dela gurasoen artean. Ikasleen artean ere pasilloetan, jolas garaietan ere sumatzen dugu gaztelera geroz eta indar gehiago hartzen ari dela. Gurasoen eremu horretan esku hartzen saiatu behar girela iruditzen zitzaigun. Errealitate hori ematen zela ikusteko, galdetegi bat pasa genien gurasoei.

Galdetegiko emaitzak duela gutxi aurkeztu dituzue?

Emaitzak eskutan, beraiek egin zituzten hausnarketak gurekin partekatzeko deialdia egin genien gurasoei, zerbait egin ote zitekeen pentsatzeko. Datuok helarazi genizkien gurasoei, beraiek ere errealitate honetaz jabetu zitezten. Askotan iruditzen zaigu hemen euskaraz pila bat egiten dela, baina ez da hala. Soziolinguistika Klusterraren ikerketan ere harrirituta



Ibon Azkonobieta, Udarregiko hizkuntz normalkuntzarako arduraduna.

geratu nintzen, hobera gindoazela aipatzen zelako. Baina galdetegiaren ikusten den bezala, seme-alabak ez daudenean gurasoen erdarako joera nabaria da.

Zerk bultzatzen ditu gurasoak euren artean erdaraz mintzatzera?

Guraso askok erdaraz hitz egiteko erraztasun gehiago dutela iruditzen zait. Egunerokotasunean ohituraz gazteleraz hitz egiten dute eta euskaraz hitz egitera pasatze horrek konturatze eta esfortzu bat suposatzen du, gazteleraz errazago egiten baduzu. Gurasoak askotan ere ez dira konturatzen seme-alabengan duten eraginaz, ikaragarria baita. Ikasleak ere geroz eta gazteago hasten dira gazteleraz hitz egiten eta gurasoak ez dira horretaz kontziente. Guraso bezala, umeekin euskaraz hitz egiten dugu eta gure artean gazteleraz. Orduan ikasleek zer pentsatzen dute? Gaztelera dela helduen hizkuntza. Komunikabideek ere eragin handia dute.

“Ikasleak geroz eta gazteago hasten dira gazteleraz eta gurasoak ez dira horretaz kontziente”

Egoera honen aurrean neurriak hartzen hasiak zarete?

Ekimen desberdinak martxan jartzen ari gara. Galdetegiaz gain, asmoa ere bazen elkarrizketa gu-
neak sortzea,

guraso euskaldunen zaletasunak abiapuntu hartuta. Mintzlagun egitasmoa hortik ere etorri zen. Euskaltegikoekin hitz egiten genuen garrantzitsua izango zela ikastolako gurasoekin talde batzuk sortzea. Bestalde, ostiraletan albiste buletina kaleratzen dugu. Hor albiste desberdinak sartzen ditugu, gurasoak zirikatzeko. Korrika Txikia ospatuko dugu martxoaren 21ean. Ostiralero lantzen ditugun hizkuntza jolasak, egun horretan gurasoek dinamizatzea ere pentsatu dugu. Ia guraso batzuk animatzen diren. Azkenik, Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza harremana erdaratik euskarara aldatu zuten 27 bikoterekin ikerketa eginga du. Haiekin hitz egiten ari gara, bikoteetako bat ikastolara etorri eta euren esperientzia konta dezaten.

Euskararen ezagutza hazten doa Usurbilen, baina erabilera ez hainbeste. Bada zer eginga beraz?

Ezagutza aldetik iritsiko da une bat, non denak jakingo dugun euskaraz. Ezagutza hori bermatuta egongo da, baina erabilera ikusten dugu oso urrun dagoela. Zerbait gaizki egiten ari gara. Non esku hartu badugu, eta hau islatu behar da. Ezagutza bai, baina hitz egiten ez badugu, ezagutza zertarako?

Kontatzen ari zareten errealitate hau nola islatzen da egunerokoan?

Ikastolan gaudenean gurasoak hitz egiten entzuten ditugu. Alerta horrela piztu zitzaigun. Garai batean ere beste “beldur” bat zegoen. Ikastolan gazteleraz egin ordez, agian isildu eta gero ezkutuan egiten zen. Ikasleek ere berdin, irakasle bat ikusitakoan. Orain oso librea da.

“BATZUEI OHITURAZ ATERATZEN ZAIE ERDARAZ EGITEA”

Alde horretatik lasaitu egin gara?

Asko. Gaur egun, erdaraz hitz egiteko ezkutuan ez ibiltze hori positiboa iruditzen zait. Batetik gu konturatzeko zein den errealitatea eta zer ari den pasatzen. Eta ezkutuan ibiltzeak ezer onik ez duelako ekartzen. Aurreko batean pasilloan ikusi ninduten ikasleek, erdaraz hitz egiten ari ziren eta isildu egin ziren. Erdaraz hitz egin nahi bazuten lasai egiteko esaten nien, ez niela behartuko euskaraz egitera. Batzuei ohituraz ateratzen zaie erdaraz hitz egitea eta ezin zaie euskaraz hitz egitea exijitu, lagundu egin behar diegu.

Galdetegiko emaitzak

Udarregi Ikastolak ezagutzera eman ditu, berriki hizkuntza erabileren inguruan gurasoei egin zaien galdetegiko emaitzak. Oso argigarriak dira. Jarraian, kasu desberdinetan eta heziketa ziklo desberdinetako ikasleen gurasoak, euren euskara ezagutza mailaren arabera, ze hizkuntzetan mintzatzen diren adierazten da.

Bi gurasoek euskaraz ondo dakitenen kasuan...

Euskaraz:

Familia osoa elkartuta dagoenean

HH: 31/33.

LH: 91/97

DBH: 61/70.

Gurasoak seme-alaben presentzia gabe

HH: 23/33.

LH: 50/95.

DBH: 32/70.

Guraso batek euskaraz ondo eta besteak euskaraz zerbait dakienean...

Familia osoa elkartuta dagoenean

Euskaraz edo gehienetan euskaraz:

HH: 5/14.

LH: 14/33.

DBH: 11/32.

Erdaraz edo gehienetan erdaraz:

HH: 2/14.

LH: 9/33.

DBH: 8/32.

Gurasoak seme-alaben presentzia gabe

Euskaraz edo gehienetan euskaraz:

HH: 1/14.

LH: 5/33.

DBH: 2/32.

Erdaraz edo gehienetan erdaraz:

HH: 11/14.

LH: 25/33.

DBH: 25/32.

Guraso batek euskaraz ondo eta besteak euskaraz ez dakienean...

Euskaraz edo gehienetan euskaraz egiten dute seme-alabekin:

HH: 1/13.

LH: 7/14.

DBH: 5/6.

Gazteleraz edo gehienetan gazteleraz egiten dute seme-alabekin:

HH: 0/13.

LH: 7614.

DBH: 1/6.

Gurasoek euskaraz erdipurdi dakitenean...

Euskaraz edo gehienetan euskaraz egiten dute seme-alabekin:

HH: 3/12.

LH: 2/15.

DBH: 1/15.

Gazteleraz edo gehienetan gazteleraz egiten dute seme-alabekin:

HH: 5/12.

LH: 6/15.

DBH: 14/15.

Euskararen erabilera sustatzeko, bilera otsailaren 27an

Euskaraz bizi nahi duen herritar orori zuzendua egongo den bilera deitu dute otsailaren 27rako, 18:30etan Potxoenean. Hitzordu hau Aholku Batzordean planteaturiko kezka baten haritik dator. Usurbilen, hainbat gunetan euskara baino erdara gehiago erabiltzen den inpresiotik hain zuzen.

Usurbildarrak garaile, larunbateko ginkanan

Korrikaren aldeko ginkana ospatu zen larunbatean Usurbilen. Abiapuntua, Aitzaga ataria izan zen. Ekimena abiatu baino lehen, ondoko argazkia atera genuen. Azkenean, "Lekukoaren bila" izeneko ginkana honetarako sei talde osatu ziren, horietako bat (kamiseta horiekin) usurbildarrez osatua. Gainerakoak lasartearrak ziren. Etxekoek irabazi zuten. Laster, Irunen jokatuko dute Gipuzkoako kanporaketa.



Lasarte-Oria eta Usurbilgo gazteek hartu zuten parte ginkanan.

Korrikaren aldeko mus txapelketa, larunbat honetan

Gipuzkoako Korrika II. Mus Txapelketa antolatuta dute, martxoan ospatuko den euskararen aldeko lasterketa dela eta. Larunbat honetan, otsailaren 23an, Usurbil eta Lasarteko kanporaketa jokatuko da, azken udalerrir honetako Xirimiri elkartearen, arratsaldeko 16:00etan hasita. Ekimenean parte hartzeko asmoa dutenek, ordu erdi lehenago bertaratu beharko dute elkarte honetara, izen emateko. Bikote bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu.

Korrika Batzordeak antolatuta du ekimen hau eta berri eman dutenez, "kanporaketako bi finalistentzat sariak egongo dira eta irabazleek martxoaren 16an arratsaldeko 17:00etan Andoaingo Irunberri elkartearen izango den finalerako txartela eskuratu dute".

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Andoni Errazkin
Xukin
igeltzeritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

 **TAXI**
24 h
USURBIL

677 37 34 66 } Joxe
943 36 21 78 } Etxabe

Zumarteko lau ikasle Andoaingo Piano Jaialdian



Partehartzaile denei ematen zaie domina eta agiri bat.

Andoaingo Piano Jaialdia ospatuko da asteburu honetan. Andoaingo Udalak eta Seiasle Elkarteak elkarrekin antolatzen duten jaialdi honek zortzigarren edizioa beteko du eta, honakoan ere, izango da Zumarteko ikaslerik jaialdian.

Partehartzaileak bakarka ala lau esku-tara arituko dira, adinaren eta modalitatearen arabera egindako aukeraketari jarraituz. Jaialdiko oinarrietan zehaztuta datorren pieza bat eskaini beharko dute.

Saioak goizez nahiz arratsaldean izango dira. Urtero bezala, izango da usurbildarrik partehartzaileen artean. Zu-

marte Musika Eskolatik ikasle hauek izango dira Andoaingo Piano Jaialdian, eta lauak lau eskutarako modalitatean arituko dira:

Nahia Franco Hernanik eta **Pello Ibarгойen Alvarezek** osatutako bikoteak H. C. Pacen "Israeli dance festival" abestia joko dute larunbatean, goizeko 11:15ean Basteroko auditorioan.

Jone Allur Maizek eta **Amaiur Caballero Eizagirrek** osatutako bikoteak P. Wedgwooden "Stil waters" abestia joko dute larunbatean, eguerdiko 12:00etan Basteroko Auditorioan.

Saioen bukaeran, parte hartzaile guztiek domina eta agiria jasoko dituzte.

Larunbat honetan, Kantu-jira

Larunbat honetan, otsailaren 23an hitzordua dute kantu zaleek. Hilabete honetako kantu-jira ospatuko da, iluntzeko 19:00etatik aurrera. Kantu zaleak Mikel Laboa plazatik abiatuko dira. Ohi bezala, ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea. Eta bestalde, gogoan izan, Kantu Taldekoen entseguak astearte arratsaldetan izaten direla, 18:30etatik aurrera Udarrerregin.

Presoen eskubideen aldeko barrikotea egingo da larunbatean

Usurbilgo presoen eskubideen aldeko barrikotea antolatu du Aitzaga Elkarteak, larunbat honetarako, otsailaren 23rako. Askatasuna Plazan burutuko da ekimena, eguerdiko 12:00etatik aurrera. "Usurbildar guztiak zaudete gonbidatuak! Bertan, Saizar eta Iruin sagardoak dastatzeko az gain, pintxoak ere egongo dira. Musika eta giro ederra ere ez da faltako!", berri eman dute antolatzaileek.

Ostiral honetan, elkarretaratzea

Otsaileko azken ostirala dugu hilaren 22 hau. Ohi bezala, Herrirak euskal preso politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du. Iluntzeko 20:00etatik aurrera elkartuko dira, Mikel Laboa plazan.

Usurbil FT-ko txartelak

Aurtengo bazkide txartelak eskuratu dituzte jada Usurbil FT-ko zuzendaritzakoek. "Bazkide bazara eta zeure txartela nahi baduzu, Haraneko tabernatik pasa zaitez. Bertan izango gara zuen esperoan. Nahi duzuen guztioi bazkide egitera deitzen zaituztegu, bai Rural Kutxaren bitartez, edo baita, tabernan izena emanez ere".

Dirulaguntzak eskatzeko garaia

Kulturaren, baita Nekazaritzaren eta Ingurumenaren gizarte zerbitzuen arloetan ere dirulaguntzak eskatzeko epea ireki du Usurbilgo Udalak, alor hauetako herriko talde edo elkarteentzat. Eskararak martxoaren 1era arte aurkeztu daitezke, kultura, nekazaritza eta ingurumeneko kasuan. Hilaren 4ra arte, gizarte zerbitzuen kasuan. Udal

deialdi honek, urte honetan zehar Usurbilen burutu ahalko diren egitasmoak laguntzea du helburu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta daude deialdi hauek... Usurbilgo Udaren atari usurbil.net web orrialdean eskuragarri daude, dirulaguntza hauen deialdiak eta eskaera orriak.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

Zuen publizitatea hemen

 943 360 321

publizitatea@noaua.com

Gipuzkoako lehia betean, Usurbil FT taldeko infantil mutilak

Albiste on ugari ematen ari dira azken aldian, herriko kirol taldeak. Usurbil FT-ko infantil mutilak horren adibide. Lehen fasea sailkapen buruan zirela amaitu dute. Orain, Gipuzkoako txapelketa dute erronka nagusi, Iñaki Uli eta Josu Zalakainek entrenatu eta Manu Urbieta koordinatzaile duen taldekoek. Gogotsu direla diote, erronkari heltzeko prest, lerrootan adierazi digutenez, Josuk eta Iñakik bere garaian egin zuten moduan.

Aurkeztu ezazue taldea.

Josu Zalakain. Infantil mailako lehenengo urtekoak entrenatzen genituen iaz. Talde txiki bat ginen eta Futbol Zazpian jokatzen genuen. Aurten, bigarren urtekoak izatera pasa dira pila bat azkenean, 25 jokalaria. Gaur bertan arabiar bat etorri zaigu. Partidetarako hamaikakoa osatzeko arazo asko izaten dugu. Denek jokatu dezaten saiatzen gara. Neurketa bakoitzean bost jokalaria konbokatutxan gabe uzten ditugu. Horrek mina ematen du. Txandaka egiten dugu, errotatzen joaten gara.

Ezin hobeto, lehenengo postuan amaitu duzue lehen fasea?

J. Z. Denboraldiko lehen partida galdu genuen baina gainerako guztiak irabazi ditugu. Oraintxe topera gaude.

Iñaki Uli. Lehen faseko azken



Denboraldi polita osatzen ari dira taldeko jokalariek.

IÑAKI ULI

“Gipuzkoako finalera iristeko esperantza dute jokalariek”

neurketa jokatu dugu asteburuan, baina partida hau baino lehenagotik sailkatuta geunden lehen postuan. Orain hurrengo faseari begira gaude. Ia bigarren ere ondo aritzen garen.

Zer fasetarako sailkatu zarete orain?

I. U. Lehen Txapeldunen Fasea deitzen zitzaien horretara, multzo bakoitzeko talde onenak pasatzen dira. Sei taldeko bi multzo dira. Seiko horretatik multzo bakoitzean lehenengo gelditzen diren bi taldeek finala jolasten dute elkarren aurka, Gipuzkoa mailakoa. Hori irabaziz gero Euskadiko Txapelketa jokatzen da.

Une honetan beraz, Gipuzkoari begira zaudete?

J. Z. Gipuzkoari begira bai. Ka-

sualitatea, ni eta Iñaki infantil mailan jokatzen genuenean iritsi ginen Gipuzkoako txapelketa irabaztera eta Euskadiko Txapelketa jokatzeo aukera izan genuen, Nafarroa, Araba eta Bizkaiaren aurka Berion. Orain esperientzia berri errepikatu nahi genuke.

Taldea nola ari da bizitzen une hau?

I. U. Konfiantzaz eta esperantzarekin ikusten dira jokalariek. Badakite eurek ere talde polita dutela eta Gipuzkoako finala jolastera iristeko esperantzarekin ikusten dira.

Jokalariek nola ikusten dituzue fase berri honi ekiteko?

J. Z. Taldea indartsua da eta aukerak badituela iruditzen zait. Bi jokalaria asko nabarmentzen dira. Realetik deitu diete. Aurten gurekin bukatuko dute denboraldia eta gero ez dakit zer egingo duten. Realer joango diren edo ez. Horiekin denboraldia oso ondo bukatu nahi dugu.

Eskubaloi partidak Otsailak 23, larunbata

Infantil mutilak. 11:30

Udarregi Usurbil-Urnieta

Jubenil mutilak. 16:00

Usurbil KE - Eibar Eskubaloia

Senior mutilak, 2T. 17:30

Usurbil KE - Leizaran

Senior neskak. 19:00

Atez Ate Usurbil-Egia Bera Bera

Otsailak 24, igandea

Infantil neskak. 10:00

Udarregi A Usurbil - Zarautz

Futbol partidak

Otsailak 23, larunbata

Infantil neskak F-8, 09:00

Jubenilak, 15:30

Kadeteak F-11, 17:30

Otsailak 24, igandea

Alebinak futbol eskola 10:00-13:00

Pilota partidak

Otsailak 21, osteguna

20:45ean Aginagan

UDABERRI TXAPELKETA

Paleta Goma nagusiak 1. maila

USURBIL (J. Arruti-J. Olaizola)

LOIOLATARRA 1

Paleta Goma nagusiak 2. maila

USURBIL 1 (I. Alzuri-A. Urdanpilleta)

MUNDARRO

Otsailak 22, ostirala

19:30etan Aginagan

UDABERRI TXAPELKETA

Eskuz binaka infantilak

USURBIL (U. Zubeldia-A. Aranguren)

EPLA (Errenteria)

Eskuz binaka nagusiak 2. maila

USURBIL (J. Zendoia-J. Gesalaga)

ANTIGUA

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Eskuz binaka nagusiak

USURBIL (A. Portu-X. Errasti)

MAESTU

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kale-fakzioa, parket... ikusgarria. 220.000 euro. 636393237

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 216.000. 662 056 899

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitasi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trastero eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trastero. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trastero, berrituta, fatxada, teiltua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA

salmenta, garajeak

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten

laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-



Zorionak Janitz!
Otsailaren 25ean 6 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Xabat!
Otsailaren 20an, 9 urte beteko dituzu. Ondo ondo pasa eguna eta ondo ospatu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!!!



Zorionak Irati!
Martxoaren 2an urte bat beteko duzu. Zorionak eta muxu handi handi bat familiakoan partetik.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

Heriotzak

Anttoni Ibargoien Alzaga
90 urterekin hil zen, otsailaren 13an



Gregori Sarasola Alzaga
78 urterekin hil zen, otsailaren 13an



Jose Miguel Goenaga Aristondo
86 urterekin hil zen otsailaren 13an



Juana Lopetegui Etxabe
93 urterekin hil zen otsailaren 18an



tzaille moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldian lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteriztan eta Haur Hezkuntzan diplomatu. Badut

esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Sukaldari bat behar dugu asteburuetan, Xarma tabernan. Interesatuak deitu: 943 368 771.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

BESTELAKOAK

Setter-spaniel nahasketako txakurra galdu da Usurbilgo kaxkoxan. Chip-a dauka eta txuri du ize-na. 608 60 32 52.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Txamarra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigo eta jertse teknokailera ondoan. 660779160

Su egurra salgai. Haitza eta

Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta sal-tzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Behar ez dudana Daewoo markako telebista, 28' bere kanpo TDT arekin, behar duenari emateko prest. 657770131 WhatsApp.

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiuak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak, bizikletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	LurraldeBus	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gonzalez Ehorzetxea	943 362 163
KZgunea	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Popular Español	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	BBVA	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Telefonica	1004
Abere-Landare Babeslea	943 376 650	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak otsailak 21-martxoak 3

Osteguna 21 GIL Kale Nagusia 24 behea Lasarte

Ostirala 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

Larunbata 23 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42 Lasarte

Igandea 24 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42 Lasarte

Astelehena 25 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astearte 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

Asteazkena 27 ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

Osteguna 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 01 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42 Lasarte

Larunbata 02 ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

Igandea 03 ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Jose Aizpurua

Unanue eraikuntzak S.L

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Agenda otsaila

22 ostirala

- **Egunkariari buruzko erakusketa Udarregi ikastolan.** Bisita egiteko azken eguna.
- **Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** Mikel Laboa plazan, 20:00etan.

23 larunbata

- **Kolonbiako bake prozesuari buruzko hitzaldia.** 18:00etan Usurbilgo gaztetxean.
- **Kantu jira.** 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

24 igandea

- **"Aita, zombia naiz" filma.** 17:00etan Sutegin. Sarrera 2 euro, egunean bertan salgai.
- **El Inigualable grupo Combo jazz taldea.** 19:00etan Usurbilgo gaztetxean.

Gazte gotiko baten gorabeherak, "Aita, zombia naiz" pelikulan

Xixongo Nazioarteko Zinemaldian *Enfants Terribles* izeneko saria irabazi zuen 2011n "Aita, zombia naiz" (Papa, sóc una zombi) animaziozko pelikula. Igande honetan, euskarazko bertsioan ikusi ahal izango dugu Sutegin. 17:00etan hasiko da proiektzioa eta sarrerak, 2 eurotan, egunean bertan ipiniko dira salgai, Sutegiko lehiatilan. Helduentzako zein gaztetxentzako animazio filma, eta Goya sarietan kategoria horretako hautagaien artean egon zen.

Dixie nerabe bihurria da. Bost urte pasatu dira gurasoak banandu zirenetik, eta, orduz geroztik, neska diferentea izatearekin amets egin du Dixiek. Institutuko lagunek ez dute normaltzat hartzen, haren janzkera eta portaera guztiz diferentek baitira. Halako batean, gertaera latz batek



Animaziozko film hau jatorriz katalana da.

dena aldatuko du. Mundu berri horretan, gaizkiaren indarren erregina Nigreda ezagutuko du. Harekin batera, atseginagoak diren beste pertsonaia batzuk: Gonner pirata pikarora, Isis momia berbalapikoa.

Datozenak

Drogak eta mendekotasuna hizpide

Datorren asteazkenean, otsailak 27, Izar Arregi psikologoak hitzaldi hau eskainiko du Artzabalen: "Droga mendekotasunaren prebentzioan zer egin dezakegu guraso eta hezitzaile moduan?". 18:30ean hasiko da.

Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea

Martxoaren 1ean ostirala, 20:00etan Mikel Laboa plazan, kutsaduraren aurkako elkarretaratzea burutuko da.

Odol ematea, martxo 4

Martxoko lehen astelehenean, hilaren 4an, 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

Kolonbiako bake prozesua hizpide

Aurreko astean iragarri genuen moduan, Luis Plaza Velez sindikalista kolonbiarrak hitzaldia eskainiko du larunbatean Usurbilgo gaztetxean, 18:00etatik aurrera. Iaztik Kolonbian martxan den bake prozesua izango du hizpide.

Sorturen eratze kongresura, busean

Larunbat honetan Sorturen eratze kongresu amaierako ekitaldira joateko autobusa 15:30ean abiatuko da, Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik Iruñeara. Apuntatzeko zerrendak Aitzagan, Txiribogan eta Bordatxon jarri dituzte.

Jazz kontzertua gaztetxean

El Inigualable Grupo Combo taldeak swing, bebop, funk, bossa-nova, latin estiloak jorratzen omen ditu, jazz-aren eremuetatik haratago, beraz. Igande honetan, arratsaldeko 19:00etan izango dira Usurbilgo gaztetxean. Sarrera, doan.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

USURBIL AUTOAK
 ·TAILLERRA ·KARROZERIA ·KOTKEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea  **943 36 10 79**



DESKONTUUA %5

OTSAILAREN 25etik
MARTXOAREN 3ra
BITARTEAN

EROSKETA GUZTIETAN
%5EKO DESKONTUA
IZANGO DUZU
HURBILAGO
TXARTELAREKIN
ORDAINDUTA



TXOTX

!!!

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenea

SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com